

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzak, 2026” izeneko deialdiaren ebazpena, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2026ko uztailaren 20an emana

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako dirulaguntzen ordenantza orokorretan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen “Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak, 2026. urtea” udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa, 2026ko apirilaren 1eko erabakiz (2026ko maiatzaren 4ko ALHAO, 50. zk.), 100.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2026ko ekitaldirako onartutako udal aurrekontuko 0821.4331.47136 partidaren kontura.

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 15ean amaitu zen, eta guztira hamasei (16) eskabide aurkeztu ziren. Eskabide horiek behar bezala aztertu ondoren, Balioespen Batzorde Teknikoak 2026ko uztailaren 2an egindako bileran aztertu eta eztabaidatu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita ekonomi kudeaketa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategia Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127.1.g) eta 2. artikuluetan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidura badagonez, ikusirik balioespen batzordeak egindako proposamena, eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko maiatzaren 16ko dirulaguntzen arloko eskumenak eskuordetzeari buruzko erabakiari jarraikiz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau ebatzi du

EBAZPENA

Lehenengoa. “Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzak. 2026. urtea” udal programaren barruan laguntza hauek ematea onestea, adierazitako zenbatekoekin, betiere 16. oinarrian ezarritako muga kontuan hartuta:

	ENPRESA	BALORAZIOA									DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN INB.	DIRULAG. TEORIKOA	DIRULAG. ERREALA
		1. IRIZ.	2. IRIZ.	3. IRIZ.	4. IRIZ.	5. IRIZ.	6. IRIZ.	7. IRIZ.	8. IRIZ.	GUZTIRA	EURO	EURO	EURO
1	A01229491	23,5	40,3	4,3	0	0	3	5	0	76,2	277.004,00	180.052,60	10.000,00
2	B01584440	23,7	37,7	3,3	0	0	0	5	5	74,7	21.335,55	13.868,11	10.000,00
3	A01316637	20,2	30,7	3,3	0	5	5	5	5	74,2	38.210,76	24.836,99	10.000,00
4	B01351329	21,5	39,3	4	0	2,5	3	0	0	70,3	98.800,00	64.220,00	10.000,00
5	B01266451	20,7	32	2,7	0	2,5	0	5	5	67,8	14.022,10	9.114,37	9.114,37
6	A01116268	21,8	34,3	3,3	0	2,5	0	5	0	67	112.760,15	73.294,10	10.000,00
7	B09868365	20,2	35,7	0,7	0	0	0	5	0	61,5	10.385,00	6.750,25	6.750,25
8	B01482520	21,7	34,3	3,3	0	0	0	0	0	59,3	60.000,00	39.000,00	10.000,00
9	F01524438	14,7	27,3	3,3	5	2,5	3	0	0	55,8	54.300,00	35.295,00	10.000,00
10	B01528348	16,2	27,7	1,7	0	0	0	5	5	55,5	80.145,00	52.094,25	10.000,00
11	B01517051	14,7	29,3	2	0	0	0	5	0	51	19.251,78	12.513,66	4.135,38
12	B01106269	15,5	25	1,7	0	5	3	0	0	50,2	73.000,00	47.450,00	0,00
13	B16427791	15,5	29,3	1,7	0	0	3	0	0	49,5	34.596,00	22.487,40	0,00
GUZTIRA													100.000,00

Bigarrena. Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura agortu dela adieraztea eta, beraz, enpresa hauek aurkeztutako eskabideak ezestea:

	ENPRESA	BALORAZIOA									DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN INB.	DIRULAG. TEORIKOA	DIRULAG. ERREALA
		1. IRIZ.	2. IRIZ.	3. IRIZ.	4. IRIZ.	5. IRIZ.	6. IRIZ.	7. IRIZ.	8. IRIZ.	GUZTIRA	EURO	EURO	EURO
12	B01106269	15,5	25	1,7	0	5	3	0	0	50,2	73.000,00	47.450,00	0,00
13	B16427791	15,5	29,3	1,7	0	0	3	0	0	49,5	34.596,00	22.487,40	0,00

Hirugarrena. "Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak. 2026. urtea" deialdiko 15. eta 16. oinarrietan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu ez dutenez, eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea enpresa hauei:

	ENPRESA	BALORAZIOA			
		1. IRIZ.	2. IRIZ.	3. IRIZ.	GUZTIRA
1	B13999941	8,8	16,3	1,3	26,5
2	B01179548	7,2	18,7	0	25,8
3	B56149057	11,8	8,7	0	20,5

Laugarrena. Emandako dirulaguntza horien guztien zenbatekoa, hau da, 100.000 euro, 2026ko ekitaldirako onetsitako udal aurrekontuko 2026/08.21.4331.4.7136 aurrekontu-partidan kontura jasota uztea (7. oinarria), laguntzen ehuneko 80ren ordainketa onestea (17. oinarria) eta gainerako ehuneko 20 19. oinarri horretan bertan ezarritako baldintzari lotuta uztea.

Bosgarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Seigarrena. Udalaren Enpresen Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Zazpigarrena. Erabaki hau argitaratzea Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta ALHAOn, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraikiz.

Zortzigarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzieta-rako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze errekurtsoa espresuki edo presuntzios ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 22an

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA-ANDONI GARCÍA ARDANAZ ARDANAZ